

# ASTE NAGUSIA 2024



# GROSEKO INDARRA SURFESKOLA TALDEA

IKASI, GOZATU  
BIZI, ELKARBANATU

📞 695-75 44 71

🌐 [grosekoindarra.com](http://grosekoindarra.com)



ALTZARIAK  
BARNE DISEINUA

[www.apal.eus](http://www.apal.eus)

Ametzagaña 7 · Donostia  
943 320400 · [info@apal.eus](mailto:info@apal.eus)

# Jaiak gauza serioa dira

Hemen da, beste urte batez, Donostiako Aste Nagusia. Udalak zein Donostiako Piratek egitarau zabalak prestatu dituzte aurten ere, zortzi egun eta gaeuz hiria jai giroan murgildu dadin.

Hamaika plan egin ditzakezu Donostian hilaren 10etik 17ra, kaiko txupinazotik edo Alderdi Ederreko kanoikadatik hasita eta zortzigarren gaueko azken kontzertuan —edo gaueko ordu txikitik irekita jarraitzen duen azken tabernan— bukatuta. Tartean, hiriaren erdigunean bereziki, baina baita auzo batzuetan ere, haurrentzako jarduerak, kirol jarduerak, oturuntzak, dantzaldiak, kultur ikuskizunak eta beste aurkituko dituzu. Eta, zortzi egunekin nahikoa ez baduzu, bederatzigarrenean Irrikitaldia izango duzu zain!


Egongo da, beti bezala, gauari bizkarra eman, eta egunean zehar antolatzen diren jarduerak disfrutatuko duenik, baita saiakera egin bai, baina gauak harrapatuta, eguzkia gutxi ikusiko duenik ere. Egongo da, beti bezala, izozkia-su artifizialak bikote bereizezina-ren plan topiko bezain tipikoa egingo duenik, baita ogitartekoa eskuan, suak begiratu ere egingo ez dituenik.


Egongo da, noski, besteek jaietz disfrutatu ahal izan dezaten, zerbitzari, garbiketa, segurtasun, antolaketa eta bestelako lan ordainduetan ordu asko lanean pasatu behar-kiko duenik, baita zaintza lan ez ordainduetan eta txandetako lan militantean, gutxienez, beste horrenbeste ordu pasatuko dituenik ere. Bejondeizuela!


Tamalez, egongo dira ere erasoak eta erasotzaileak: eraso matxistak, eraso LGTBifoboak, eraso arrazistak, eraso klasistak, lapurretak eta beste. Horietako bakar bat ere ez da onargarria, eta horiek guztiak desagertzen ez diren arte, jaiak denontzat ez diren arte, jaiak ez dira guztiz jai izango. Izan ere, jaiak herriarenak dira, denonak, komunitatearenak. Eta ezinbestekoak dira gizarte kohesionatu eta bizi bat edukitzeko. Jaiak gauza serioa dira, garena eta izan nahi duguna erakusten dute.

Horregatik guztiagatik, helburu bakarrarekin atera zaitetz kalera: Ondo pasatu eta ondo pasatzen utzi!



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

**Argitalpen data:** 2024ko abuztua

**Lege Gordailua:** SS-226-05

**Testuak:** Erredakzioa

**Argazkiak:** Erredakzioa

**Diseinua:** Oier Arribas Ciria

**Publizitatea:** Aizpea Aizpurua Arroio  
aizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

**Irutxulo**  
**.hitza**  
**.eus**

# ASTE NAGUSIA



# Piratak



## «Horrelako balioak dituzten jai batzuk sortzeak ilusioa egiten digu»

### BITTOR HERNANDO ETA KATTALIN MUTUBERRIA

Donostiako Piratetako kideak

Donostiko Piratak hilabete luzez aritu dira lanean Aste Nagusi euskaldun, feminista eta herritar bat eskaini ahal izateko. Bittor Hernandok (Parte Zaharra, 1997) eta Kattalin Mutuberriak (Egia, 1999) Aste Nagusi Pirataren nondik norakoak azaldu dizkigute.

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

**Gutxi falta da Aste Nagusirako. Zer moduzkoa izan da antolaketa?**

**Kattalin Mutuberria (K.M.):** Aurtan, azken urteotako joera bera jarraitu du antolaketak. Orokorrean, kostatu egiten zaigu ikasturtean zehar martxa hartzea, baina Aste Nagusia gerturatzen doan heinean, jendea aktibatuta egiten da. Azken hilabeteotan, gelditu gabe ibili gara. Normalean, iraila edukitzen dugu deskantsatzeko, eta urrian jada urteko erronkei eta hurrengo Aste Nagusiarri begira martxan jartzen gara.

**Bittor Hernando (B.H.):** Jendeak, Piratak soilik Aste Nagusiarekin irudikatzen ditu, baina urtean zehar ere buru-belarri ibiltzen gara gauzak antolatzen eta bilerak egiten. Atzetik lan handia dago. Ematen du Aste Nagusi bat antolatzeko egitarau bat atera besterik ez dela egin behar, baina horretarako, kofradiak nola dauden jakin behar da, aurreko urteko akatsak eta gauza onak zeintzuk izan diren, nor jarraituko duen lanean eta nor ez... Hala ere, gustura ibiltzen gara antolaketan. Horrelako balioak dituzten jai batzuk sortzeak ilusioa egiten digu.

**Aurtan ere egitarau oparoa prestatu duzue. Ba al dago berritasunik?**

**K.M.:** Egitarauaren eskema nagusia denon artean antolatzen dugu. Kofradiek, normalean, urteroko antzerako egitaraua egiten dute. Nire ustez, errepikatze hori ondo funtzionatzen duen zerbait da-

# Euskaraz hitz egiten badakizu?

## Ondo pasa jaiak!

 **hitzez**  
euskaltegia

**GROS-en**  
ikas ezazu



Ezkila kapitaina, 2023ko Aste Nagusi Piratako txupinazoa botatzen. © JOSEBA PARRON

goenaren seinale da. Horregatik, kostatu egiten zaigu gauza berrietara salto egitea, eta, orokorrean, egitarau antzekoa da aurtengoa. Duela bi urte sortu genuen Piraten Eguna nabarmenduko nuke, gure egitarauan gutxika erreferentzialtasuna hartzen ari delako.

**B.H.:** Nire ustez, aurten egin dugun apustua Lasta guneari bizitasuna ematea izan da. Bi espazio eskaintzea, alde batetik kontzertuen espazioa (Flamenka), eta bestetik, jendea goxo eta lasaiago sentitzeko espazioa (Lasta).

**Hainbeste kofradia eta pirata izanda, erraza al da antolakuntza prozesua?**

**K.M.:** Ez da batere erraza. Nik, beste bi koordinatzaileekin batera, kofradien arteko harremana koordinatzen dut. Oso anitzak gara, bai pentsamendu aldetik,

bai izaera aldetik. Kosta egiten da, baina aldi berean oso aberasgarria den zerbait da. Donostia eta Donostiako jaiak ulertzeko modu ezberdinak dauzkagu, baina helburu komunera begiratzen saiatzen gara. Prozesu aberasgarria da.

**B.H.:** Beti esaten da Piratek dituzten balioak euskalduntasuna, feminismoa, parte hartzea eta auzolana direla, baina lau hitz horiek ulertzeko modu asko daude. Jaiak sortzean, kontuan eduki behar dugu musika eskaintza oparoa izatea eta egitarauak denontzako jarduerak edukitzea.

**Zergatik dira garrantzitsuak Donostiako Piratak?**

**K.M.:** Auzolana ia auzo guztietan izaten da, eta Piraten mugimenduak hori biltzen du, Donostiako mugimendu herritarra. Donostiar

“

KATTALIN MUTUBERRIA  
DONOSTIAKO PIRATAK

## «Gaur egun, mugimenduak ezinbestekoa du lantalde feminista»

gisa, bere hirian parte hartzeko eta «etxeko» espazio bat izateko aukera eskaintzen du.

**B.H.:** Donostian, Aste Nagusia ezin da Donostiako Piratak gabe ulertu. Egunen batean, agian, iritsiko da piratarik gabeko jai, baina beste norbait egongo da ordezkarri gisa, jai alternatibo batzuk antolatzen. Izan ere, Donostiak beharrezkoa du beste proposamen bat, udalaren eskaintza gain. Guk sortu behar ditugun jaiak herritik eta herriarentzat izan behar dira.

**Aurten, Matti Kaleko Afari Solidarioak izango da. Nola hartzen da erabaki hori?**

**K.M.:** Matti aukeratzeko prozesu bat jartzen dugu urtero martxan. Azken urteotan, prozesu horretan, sarritan agertu da Kaleko Afari Solidarioak proposamen gisa, eta aurten, nahiko aho batez aukeratu dugu. Pertsonalki, Kaleko Afari Solidarioen bi alderdi nabarmenduko nituzke: alde batetik, Donostian kalean bizi diren pertsonekin zein migranteekiko dagoen jarrera arrazistaren problematikarekin lan egiten dutela. Bestetik, egunero afari solidarioak



**ILAZKI**  
EUSKALTEGIA

HABEK diruz lagundua

**HADE**

ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Ondo pasa  
jaietan!

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus



Urteroko legez, jendetza batu zen 2023ko abordatzean.  JOSEBA PARRON

kozinatzen, egiten eta banatzen dituzten boluntarioei Donostiak aitortza bat zor diela uste dut.

**B.H.:** Kaleko Afari Solidarioak boluntario gisa ari dira, egunero-egunero, Donostiako hainbat auzotan afariak ematen kaleko jendeari. Hori guztia herria da, horrelako proiektuak zaindu behar dira, eta txalotzekoa da egiten duten lana. Piratok horrelako mugimenduekin bat egiten dugu.

**Iaz ez zen eraso matxistarik salatu. Lantalde feministak lanketa berbera egingo du aurten ere?**

**K.M.:** Lantalde feminista ez da soilik mugatzen Aste Nagusian Puntu Morea kudeatzera, baizik eta gure mugimenduan bertan feministagoak izatera bultzatzen gaitu, eta horretarako, hainbat formakuntza eskaintzen dizkigu.

Gaur egun, mugimenduak ezinbestekoa du lantalde feminista.

**B.H.:** 2019. urtean gau bakarrean eraso andana egon ziren, eta erabaki genuen horrelako egoera baten aurrean ez geundela prest jaiak antolatzen jarraitzeko, eta egitaraua bertan behera geratu zen. Guk jai erosoak sortu nahi ditugu, erasorik gabeko jaiak. Hausnarketa sakona egin zen, eta formakuntzak egiten hasi ginen.

**Zein espektatiba dituzue Aste Nagusirako?**

**K.M.:** Urte luzea izan da, baina gogotsu nago Aste Nagusirako. Pandemia ondoren izan zen beherakada horretatik ateratzeko gogotsu dago jendea. Jende gazte berria dago, espektatiba onak dauzkat, eta pozik nago egindako lanarekin.

“

**BITTOR HERNANDO**  
DONOSTIAKO PIRATAK

**«Donostiak beharrezkoa du beste proposamen bat, udalaren eskaintzaz gain»**

**B.H.:** Nahiko ondo ikusten dut. Egitarau polita atera dugu, eta musikalki oso proposamen oparoa eskainiko dugula uste dut. Abordatzeak eta Pirata Egunak itxura ona daukate. Jendea animatzen dugu Aste Nagusian eta kofradietan parte hartzera; kofradia guztietan besoak zabalik hartuko dituzte parte hartzaile berriak. ●



**IPURU S. L.**  
**ERAIKUNTZAK**

**Ondo pasa jaiak!**

Mundaiz bidea 10, 2. solairua - 24. bulegoa  
20012 DONOSTIA  
Tel.: 943-42 41 21 · www.ipuru.com



**LAIA**  
ABOKATUAK

**Ondo pasa jaiak !**

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30  
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

# Aste Nagusiko I. argazki lehiaketa

Bidali Aste Nagusian egindako zure argazkia!



**H** IRUTXULOKO  
**HITZA**

Informazio guztia  
[Irutxulo.hitza.eus](http://Irutxulo.hitza.eus)-en





# Piraten egitaraua

## LARUNBATA 10

**14:00**

Kofradien bazkariak.

**17:00 · San Telmo museotik**

Pretxupinazoa,  
Pasai txarangarekin.

**19:00 · Moilaberrian**

Ezkila eta Mattiri ongietorria.

**19:30 · Flamenkan**

Txupinazoa.

**20:00 · Trinitate plazan**

Afariak.

**23:05 · Trinitate plazan**

Rukularen kontzertua.

**23:05 · Flamenkan**

Akerbeltz erromeria.



**HERRIA**

TABERNA

BAZKARIAK ETA AFARIAK EMATEN DITUGU

Ikatz kalea, 14 · 943-45 79 57 



**Atlas**

fisioterapia



Heriz 10,behea  
(Antigua) 943-31 14 00

info@atlasfisio.eus  
www.atlasfisio.eus



**LEGAZPI 6**  
EUSKALTEGIA

**Ondo pasa  
Aste Nagusian!**

Euskaraz jardun eta lantzeko talde ezberdinak ditugu:  
erretiratuak, alfabetatzea, titulu homologatuak (A1, A2, B1, B2, C1, C2), autoikaskuntza, mintzamena...



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-21 99 07



legazpi6@legazpi6.eus

## IGANDEA 11

### 11:00 · Lastan

Haur jolasak eta hockey tailerra.

### 12:00 · Intxaurrondon

Bernart Etxepare plazaren apainketa.

### 14:00 · Intxaurrondon

Traganarruen bazkaria eta jolasak, Bernart Etxepare plazan.

### 14:00 · Lastan

Bazkari *arrosa*.

Tiketak Ordizia eta Kai tabernetan salgai.

### 15:30 · Trinitate plazan

Mus txapelketa.

Izen ematea: 620-85 02 00.

### 17:00 · Lastatik

Txita tematikoa: *The Txita Girls*.

### 17:00 · Intxaurrondon

Estankea abordatu!

### 20:00 · Trinitate plazan

Afariak.

### 20:30 · Lastan

Playback lehiaketa.

### 23:05 · Trinitate plazan

Dultze Meneo DJ-a.

### 23:05 · Flamenkan

Beleren kontzertua.

### 01:00 · Flamenkan

Hofe X 4:40ren kontzertua.



## ASTELEHENA 12

### 09:30 · Kaian

Baltsen muntaketa.

### 14:00 · Flamenkan

Herri bazkaria. Tiketak Triku-Harri, Marruma eta Herria tabernetan salgai.

### 17:00 · Kaian

Abordatzera! Izen ematea: [Donostiakopiratak.eus](http://Donostiakopiratak.eus).

### 18:00 · Kontxatik

Elektrotxufila elektrotzaranga.

### 20:00 · Flamenkan

Los Zopilotes Txirriaosen kontzertua.

### 20:00 · Trinitate plazan

Afariak.

### 23:05 · Trinitate plazan

Andoni Oilokiegiren kontzertua.

### 23:05 · Flamenkan

Tremenda Jauriaren kontzertua.

### 01:00 · Flamenkan

La Fulana DJ-a.

## ASTEARTEA 13

### 10:00 · Lastan

Señora +65 gosaria.

### 10:30 · Zurriola hondartzan

Haur jolasak.

### 12:00 · Lastatik

Kalekuirra.

### 12:30 · Grosetik

Trikipoteoa.

### 14:30 · Lastan

Bazkari disidentea, Sustrai kooperatibaren eskutik. Tiketak Bodeguilla eta Ensantxe tabernetan salgai.



**14:30 · Txofre plazan**

Gros Pirata bazkaria. Tiketak Marruma eta Natxo tabernetan salgai.

**16:00 · Parte Zaharretik**

Bertsotrikipoteoa.

**16:30 · Lastan**

Sardinzarra, Kettel eta koktela.

**17:30 · Txofre plazatik**

Zuttik elektrotzaranga.

**18:00 · Lastatik**

Kalejira aldarrikatzaile transfeminista.

**20:00 · Trinitate plazan**

Afariak.

**23:05 · Trinitate plazan**

Ariaren kontzertua.

**23:05 · Flamenkan**

Albina Stardust eta Divina Comediaren kontzertua.

**01:00 · Flamenkan**

Pezon DJ-a.

**01:45 · Flamenkan**

Azkura DJ-a.

**ASTEAZKENA 14****12:00 · Lastatik**

Kantujira.

**14:00 · Lastan**

Gazte bazkaria (etxeko jana).

**16:00 · San Telmon**

Kuadrilla jolasak.

**17:00 · Trinitate plazan**

Bertso saioa: Amets Arzallus, Uxue Alberdi, Joanes Illarregi eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea: Unai Gaztelumendi.

**17:30 · Lastan**

Mojito lehiaketa.

**18:00 · San Telmotik**

Bazpare elektrotzaranga.

**18:00 · Lastan**

Jaranero gerrimugi, Nerea Hernandezekin.

**20:00 · Lastan**

Lilith Selektahren kontzertua.

**20:00 · Trinitate plazan**

Afariak.

**23:05 · Trinitate plazan**

La Jodederaren kontzertua.

**00:30 · Flamenkan**

Bulegoren kontzertua.

**OSTEGUNA 15****14:30 · Flamenkan**

Piraten bazkaria. Tiketak Triku-Harri, Marruma, Zulo Zahar eta Herria tabernetan salgai.

**17:00 · Flamenkatik**

Joselontxos txaranga.

**19:00 · Flamenkatik**Kantujira: *Kantua ta zikina*.**20:30 · Lastan**

Karaokea.

**BIKABI**  
ARTEKARITZA, S.L.  
CORREDURIA DE SEGUROS**Ondo pasa jaiak!****GUSTATUKO AL LITZAIZUKE ZURE ASEGURUEN BALDINTZAK AZTERTZEA?**

DONOSTIA: 943-47 47 19

BILBO: 944-23 96 34

email: [bikabi@bikabi.eus](mailto:bikabi@bikabi.eus)**ARROPA ETA DEKORAZIO  
NAUTIKOA****Ondo pasa  
Aste Nagusian!**Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA | Tel./Faxa: 943-42 47 97 | [enbatadenda@gmail.com](mailto:enbatadenda@gmail.com) | [www.enbata.eus](http://www.enbata.eus)



**23:05 · Trinitate plazan**

Rüdiger eta Vincent Bestavenen kontzertua.

**23:05 · Flamenkan**

Burutiken kontzertua.

**01:00 · Flamenkan**

Nakarren kontzertua.

**14:00 · Flamenkan**

Haurren herri bazkaria.

**15:00 · Flamenkan**

Bazkal osteko sorpresa.

**16:00 · Kaian**

Abordatze txikia.

**16:00 · Flamenkan**

Mutxikoak.

**19:20 · Flamenkatik**

Danborrada pirata.

**19:30 · Flamenkatik**

Presoen aldeko kartelada.

**20:00 · Trinitate plazan**

Afariak.

**20:30 · San Telmon**

Aurreirrikitaldia.

**23:05 · Trinitate plazan**

Eraulen kontzertua.

**23:05 · Flamenkan**

Pelaxen kontzertua.

**OSTIRALA 16**

**12:00 · Flamenkan**

Haur jolasak.

Tel.: 943-27 97 96

Bazkariak

**KATA**  
ecia

Ondo pasa jaiak!

**TAMAYO**

DONOSTIA 1914

papeleriatamayo.com  
Legazpi kalea, 4

**110 URTE !!**

**euskara hurbil,**  
zu urrun heltzeko

**aek** euskara praktikoa

**DONOSTIA**

**ANTIGUAKO AEK**  
Erregezain, 22  
943-21 80 88 · antigua@aek.eus

**AMARA BERRI AEK**  
Ordoñez, 7 (ARCCO parean)  
943-47 45 92 · amara@aek.eus

**GROSEKO IRRINTZI AEK**  
Iztueta, 3, behea

**01:00 · Flamenkan**

Belakoren kontzertua.

**LARUNBATA 17**

**10:00 · Lastan**

Piraton artisau azoka.

**14:00 · Flamenkan**

Bazkaria. Tiketak Herria, Zulo Zahar, Platero eta Kixkurra tabernetan salgai.

**17:00 · Lastan**

El Gran Ritxarsonen emanaldia.

**20:00 · Flamenkan**

Agerraldi feminista.

**23:05 · Trinitate plazan**

Elene eta Anuken kontzertua.

**23:05 · Flamenkan**

Sara Socasen kontzertua.

**01:00 · Flamenkan**

Juantxo Skalari & La Rude Banden kontzertua.



**Mahala**

Izozkiak

Boulevard 4, Donostian  
Probatu eta gozatu!

info@mahala.eus - 943 670 724 - www.mahala.eus


Ondo pasa jaiak!

**Oiartzun**

● Gozotegia: Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07

● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com

# ASTE NAGUSIA



# Udala



## «Badakigu gaua eta festa zer diren»

### ANDER BERZOSA

Joselontxos txarangako kidea

Joselontxos txarangako kideak urtez urte ibili dira Aste Nagusian Donostiako auzoak alaitzen, haien musikarekin. Taldeak hamasei urte beteko ditu aurten, eta aurreko urteen antzera, hamaika emanaldi eskainiko dituzte datorren Aste Nagusi honetan ere. Ander Berzosa (Aiete, 1992) txarangako kideak baieztatu digu jaietarako gogotsu daudela.

📷 Garazi Etxaniz Idarreta

### Nola bizi duzue Aste Nagusia taldekideok?

Txarangako kide bakoitzak bere erara bizi du Aste Nagusia. Izan ere, oso talde heterogeneoa gara, gazteenak 24 urte ditu eta zaharrenak 34. Baina, orokorrean, topera bizi dugu. Aste Nagusiko lehen eguneko kanoikadan jotzen hasi, eta bai udalak bai Piratek antolatutako ekitaldietan parte hartzen dugu. Aurten, adibidez, astelehena eta asteazkena geratu zaizkigu libre, baina beste urte batzuetan egunero jotzea tokatu izan zaigu, eta, hortaz, gelditu gabe ibili izan gara.


### Etxean bertan jotzeak badu zirrara gehiago?

Noski. Txarangako kide gehienok donostiarrak gara, eta taldea Donostian sortu zen, nahiz eta baten bat tolosarra edo Errenteriakoa izan. Guretzat, urteko asterik garrantzitsuena da, festa bizitzeaz gain festaren parte izateko aukera eskaintzen baitigu. Oso berezia da, lagunena eta familiaren aurrean jotzen dugu, eta etxean jotze horrek konfiantza sortzen du: badakizu zein tabernatan gelditu, zein abesti jo... Egia esan, oso-oso berezia da eta topera bizi dugu.

### Aurten zenbat emanaldi eskainiko dituzue Aste Nagusian? Zein zonatan?

Aurten, larunbatean, kanoikadan joko dugu; asteartean, Grosen; ostegunean, Piraten bazkariaren ostean; ostiralean, Piraten danborradan eta larunbat gauean, zezensuzkoaren ondoren, Parte

www.hostelan.com



# Hostelan

BY HOSTELERÍA GIPUZKOA

Aurkitu ostalaritzan  
gustuko dituzun  
*lanak.*



Joselontxos txaranga, 2022ko udako emanaldien denboraldia bukatu ostean.  **JOSELONTXOS**

“

**«Espektro osoa jotzen saiatzen gara: txarangen abestiak, dantzagarriak, euskal kantak, abesti latindarrak...»**

Zaharreen. Horrez gain, igandean Hendaian joko dugu eta larunbat arratsaldean Aresoko jaietan.

Guk izugarri maite dugu txaranga, eta gustatuko litzaidake jendeak guk bezain ondo pasatzea gure abestiek, errespetuz, besterik gabe. Guk ez dugu gehiago behar.

**Nolako garrantzia dute txarangek Aste Nagusiaren moduko festetan?**

Edozein herritako festak, sari, txarangarekin hasten dira. Suziria bota eta txaranga jotzen hasiko da. Festen amaiera ere,

sanferminetan *Gaixoa ni* jotzen denean gertatzen den moduan, txarangarekin izaten da. Nire ustez, ez gara konturatzen musikak duen garrantzia, bai festan, bai eta bizitzan ere, beti baitago musika toki guztietan.

Txarangan, kalea maite dugu, jendearekin sortzen den kontaktu hori maite dugu, gertutasun hori. Eszenatoki batek ez dizu aukera hori ematen, ez eta berotasun hori ere. Beraz, esango nuke txarangek giro berezi hori sortzeko aukera ematen dutela, bai eta giro ezberdinak sortzeko aukera ere: goizaldean eta bazkalostean lasaiago, eta gauean, aldiz, biziago.

**Nola aukeratzen duzue zein abesti jo?**

Kontuan hartzen dugu txaranga goizean, bazkalostean ala arratsalde edo gauean den. Guk txaranga kanpotik zer bizi nahi genukeen pentsatzen dugu, eta txaranga barrutik hori ematen saiatzen gara. Goizean jotzen ba-

dugu, lasaiago joko dugu, jendea trankil egongo da, ez dira saltoka hasiko. Bazkalostean, abesteko kantak joko ditugu, euskal kulturako abesti ospetsuenak, esaterako. Arratsalde edo gau aldean, ordea, tabernatik tabernara beste abesti animatuago batzuk joko ditugu. Azken finean, kalean dagoen giroa interpretatu behar dugu, une oro. Suziria bota eta txaranga jotzen hasiko da.

Abesti motei dagokienez, espektro osoa jotzen saiatzen gara: txarangek beti jotzen dituzten abestiak, musika dantzagarria, euskal kantak, abesti latindarrak, mexikarrak... Udako abestia deritzona ere jo izan dugu. Aurten, Isabel Aaiun abeslariaren *Potra Salvaje* abestia jotzea erabaki dugu, bai eta La Txamaren *Musa 13*, Olaia Inziarteren *Behe klasekoa* eta Skabidean taldearen *remix* bat ere. Aurreko urtean, aldiz, Quevedo abeslariaren *Quédate* abestia ez jotzea erabaki





«Hemen dagoen kultura faltan ikusten dut erronka nagusia. Gauean, jendea txarangaren korroan sartzen da, eta abar»

genuen, mundu guztiak jotzen zuelako. Taldean hartzen ditugu erabakiak, eta, egia esan, positibo da taldea osatzen dugunon artean adin tarte zabala edukitzea, hutsune gehiago betetzeko eta abestien espektro zabalagoa eta aberatsagoa izateko aukera ematen baitigu.

**Baduzue erronka nabarmenik Aste Nagusiari eta etorkizunari begira?**

Nik bi erronka mota identifikatzen ditut: txaranga barrura begira bata, eta kanpora begira lortu nahi duguna, bestea. Barrura begira, orokorrean, taldearekin aurrera egitea litzateke erronka. Azkenean, hamabost urte daramatzagu txarangan, baina oso pixkanaka iritsi gara gaur egun gauden lekura. Ez da erraza hainbeste jendek parte hartzen duen horrelako proiektu bat aurrera eramatea, zaila da beti kide berberak egotea, eta sakrifizioak egin behar izaten ditugu udan hemen jotzeko. Gustatuko litzaidake orain gauden moduan jarraitzea eta guretzat garrantzitsuak diren emanaldietan jotzea. Zenbat eta



Joselontxos txaranga, emanaldi batean. JOSELONTXOS

leku gehiagotan jo, orduan eta hobeto.

Kanpora begira, hemen dagoen kultura faltan ikusten dut erronka nagusia. Normalean, ez da arazo handirik egoten, baina, batik bat gauean, jendea txarangaren korro barruan sartzen da, gauzak airera botatzen dira... Korroan norbait sartu eta mugimendu bortitz bat eginez gero, musikariari ezpaina, hortzak, edo instrumentua bera apur diezaioke. Eta hori, sanferminetan edo Tolosako inauterietan, oso zaindua dago: hemen ez bezala, txarangen inguruan kordoi moduko bat egiten dute, musikariak babesteko. Ohikoa da urarekin gora eta behera ibiltzea, normala da, baina instrumentu gainean erortzen bada agian herdoila aterako zaio, edo izorratu egingo

da. Muga horiek zaindu egin behar dira. Guk badakigu festa eta gaua zer diren, baina kultura eta errespetu hori areagotu beharko litzateke.

**Urtean zehar ere beste hainbat emanaldi egingo dituzue.**

Guk, normalean, urtea bi multzotan banatzen dugu. Lehenengo multzoa Gabonak aldera hasiko litzateke, entseatzen hasten gara, eta hainbat aktuazio egiten ditugu: erregeak, kaldereroak, inude eta artzainak, danborrada, inauteriak... eta udara begira ere entseatzen hasten gara: abesti berriak, moldaketak... Bigarren multzoan, uda inguruan, emanaldi kopurua handitu egiten da eta ez dugu horrenbeste entsegu egiten. Urrian edo azaroan oporrak hartzen ditugu, entsegu eta emanaldirik gabe. ●

# harte

Antenak. Eraikinetan instalazio digitalak. Mantenua eta erreparazioak.



Antenak, LTD  
eta satellite



Atezain eta bideo  
atezain digitalak



Bideo-zaintza

## Ondo pasa jaiak!

943-28 77 42

Zabaleta, 44, 20002 Donostia



donostiasustapena  
fomentosansebastián



# Donostia Mugarik Gabeko Merkataritza



Gure bertako merkataritzaren  
ibilbideak ezagutu:



## ZURE SEGURTASUNA ESKU HOBERENETAN

Tolosa hiribidea, 119, 20018 Donostia (Gipuzkoa)  
Tel.:943-21 78 00  
[www.area7.eus](http://www.area7.eus) - [seguridad@area7.eus](mailto:seguridad@area7.eus)



# Udalaren egitaraua



## OSTIRALA 9

### Egun osoan zehar

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

### 16:30-18:30

Zaratarik gabeko barrakak.

### 18:00 · Kursaleko Erizainen plazan

Artie Escolar DJ-a.

## LARUNBATA 10

### Egun osoan zehar

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

### 08:00-19:00 · Zurriola hondartzan

Aste Nagusiko XIX. Hondartza Boleibol Txapelketa.

### 09:30-14:00 · Loiola kalean

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI. Azoka Berezia.

### 10:46-16:33 · Zurriola hiribidea

Donostiako Klasikoa.

### 15:00 · Badian, Pasealeku Berrian eta Zurriolan zehar

Bela estropaden zeharkaldia.

### 16:00 · Trinitate plazan

Aste Nagusiko XXIX. Esku Pilota Txapelketaren finalurrekoak.

### 18:00 · Larramendi kaletik

Erraldoiak eta buruhandiak.

### 18:15 · Trinitate plazatik

Goazen kanoikadara!

### 18:25

Kanoikadaren erritmoan Taupada eta Joselontxos taldeekin.

### 19:00 · Alderdi Ederren

Festa hasierako kanoikada.

### 19:00 · Parte Zaharrea

Joselontxos txaranga.

### 19:00 · Bulebar eta Parte Zaharrea

Taupada batukada.

### 19:00 · Kursaal auditorioan

Musika Hamabostaldia *Carmen*, Bizet Euskadiko Orkestrarekin eta Easo Abesbatzarekin, opera.

### 19:20 · Bulebarrean

Holi Fest, Josu Rodriguez DJ-a eta Lorea Intxaustirekin.

### 20:30 · Plaza Berrian

XLVII. Txistulari alardea.

### 20:30-22:00

### Kursaleko Erizainen plazan

Artie Escolar DJ-a.

### 22:45 · Kontxako badian

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa. Pyrogenie Feuerwerk (Alemania).

### 23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

### 22:30-02:00

### Kursaleko Erizainen plazan

Fan&Go taldearekin dantzaldia.

### 23:30 · Easo plazan

Stylo orkestra dantzaldia.

### 23:30 · Bulebarreko kioskoan

Donostiako Musika Eskolako Big Banda.

### 23:45 · Saguesen

Amparanoia & Los Artistas Del Gremio, fusio musika.



## IGANDEA 11

### Egun osoan zehar

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

### 09:30-14:00 · Loiola kalean

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI. Azoka Berezia.

### 11:00-14:00 / 17:00-21:30

#### Bulebarrean

Eskulangintza azoka.

### 08:00-19:00 · Zurriola hondartzan

Aste Nagusiko XIX. Hondartza Boleibol Txapelketa.

### 11:30-14:30 / 15:30-20:30

#### Katalunia plazan

Puzgarriak.

### 12:00-14:30 / 17:00-19:30

#### Bulebarrean

Feltro tailerra, Marduixa Gorriaren eskutik.

### 12:00 · Bulebarreko kioskoan

Euskal dantza mutxikoak, Jeiki Hadi taldearekin.

### 12:00 Kursaal auditorioko foyerrean

Hamabostaldia. Haurren Hamabostaldia. *Egin putz!*

### 12:45 · Iesu elizan

Hamabostaldia. Organo zikloa. Lorenzo Ghielmi

### 13:00-14:30

#### Kursaaleko Erizainen plazan

Ando DJ-a.

### 16:00 · Trinitate plazan

Aste Nagusiko XXIX. Esku Pilota Txapelketaren finalaurrekoak.

### 17:30 · Donostiako hipodromoan

Zaldi lasterketak. Behorren sari nagusia.

### 18:00 · Abuztuaren 31 kaletik

Erraldoiak eta buruhandiak.

### 18:30

#### Parte Zaharrean eta Erdialdean

Bebes De La Bulla txaranga.

### 18:30 · Kontxa pasealekuan eta Parte Zaharrean

Ustekabe txaranga.

### 19:00 · Urumea ibaian

Bisita gidatuak kanoetan.

### 19:30 · Bulebarreko kioskoan

Irun Hiria musika banda (Gipuzkoa).

### 20:00 · Plaza Berrian

Eskola dantza taldea.

### 20:00 · Kursaal auditorioan

Musika Hamabostaldia. Bach Collegium Japan.

### 20:30-22:00

#### Kursaaleko Erizainen plazan

Artie Escolar DJ-a.

### 22:45 · Kontxako badian

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa. Pirotecnia del Mediterraneo (Valentzia).

### 23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

### 22:30-02:00

#### Kursaaleko Erizainen plazan

Urbano Day: Kuluxka Klan, Ayvee, J Largo + Trydeal + Celi eta SDL Click.

**23:30 · Easo plazan**

Tsunami orkestra  
dantzaldia.

**23:30 · Bulebarreko kioskoan**

Deñe, pop musika.

**23:45 · Saguesen**

Esne Beltzaren kontzertua.

**ASTELEHENA 12****Egun osoan zehar**

Zurriola Street Food, hainbat  
herrialdetako kalean kontsumitzeko  
eskaintza gastronomikoa.

**09:30-14:00 · Loiola kalean**

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI.  
Azoka Berezia.

**09:30 · Kaian**

Abordatzera! Baltzen muntaketa.

**11:00 · Trinitate plazan**

Barrene pilota jokoa.

**12:00 · Aquariumean**

Itsas Film festibala.

**12:30 · Easo plazan**

Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi,  
Irantzu Idoate, Oihana Iguaran eta  
Agin Laburu. Gai-jartzailea: Unai Elizasu.

**13:00-14:30****Kursaaleko Erizainen plazan**

Ando DJ-a.

**15:30-20:30 · Katalunia plazan**

Puzgarriak.

**16:00-19:00 · Katalunia plazan**

Feriako jokoen  
zirkuitua.

**17:00 · Kaian**

Abordatzera!

**18:00 · Abuztuaren 31 kaletik**

Erraldoiak eta buruhandiak.

**18:30****Parte Zaharreen eta Erdialdean**

Gauerdia txaranga.

**19:00 · Urumea ibaian**

Bisita gidatuak kanoetan.

**19:00 · Antiguako frontoian**

76. Antiguako Pilota  
Txapelketa.

**19:30 · Katalunia plazan**

Firulete antzerkia taldearen  
*Etxe sorginduaren misterioa.*

**19:30 · Bulebarreko kioskoan**

Iscariense musika elkarte.

**20:00 · Plaza Berrian**

Goizaldi dantza taldea.

**20:30-22:00****Kursaaleko Erizainen plazan**

Artie Escolar DJ-a.

**22:45 · Kontxako badian**

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa.  
Unic Feux D'Artificie (Frantzia).

**23:30**

Zezenuzkoen entzierroa. Ibilbidea:  
Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

**22:30-02:00****Kursaaleko Erizainen plazan**

DJ gaua: Troti DJ-a eta Arra DJ-a.

**23:30 · Alfontso XIII plazan**

Laket dantzaldia.



Xabier

Cuesta Aguirresarobe, S.L.

Abokatua / Higiezinaren kudeatzailea / Finken administrazioa

Ondo pasa jaiak!

Mandasko Dukea, 38, behea - Donostia - Tel.: 943-27 03 27 - xabier@xabiercuesta.com



**23:30 · Easo plazan**

Cafe Irlandes orkestra dantzaldia.

**23:30 · Bulebarreko kioskoan**

Moon Fields Trioren *Zinema paradise* emanaldia.

**23:45 · Saguesen**

Ben Yart + Kiliki Frexko & Brava Showcase DJ-ak.

**ASTEARTEA 13**

**Egun osoan zehar**

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

**09:30-14:00 · Loiola kalean**

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI. Azoka Berezia.

**10:30-14:00 · Urumea ibaian**

Aste Nagusiko Bela Optimisten I. Zeharkaldia.

**12:00 · Aquiriumean**

Itsas Film festibala.

**13:00-14:30**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Ando DJ-a.

**15:30-20:30 · Katalunia plazan**

Puzgarriak.

**16:00-19:00 · Katalunia plazan**

Hockey, mini golf eta ping-pong.

**17:30 · Bulebarrean**

Bizikleta festa, haurrentzako festa.

**18:00 · Katalunia plazan**

Aste Nagusiko VII. Paella Lehiaketa.

**18:00 · Larramendi kaletik**

Erraldoiak eta buruhandiak.

**18:30 · Grosen**

Joselontxos txaranga.

**18:30 · Erdialdean**

Deiadar txaranga.

**18:30 · Tabakalerako patioan**

Hamabostaldia. Tabakalera dantzan. Myriam Perez Cazabon.

**19:00 · Antiguako frontoian**

76. Antiguako Pilota Txapelketa.

**19:30 · Bulebarreko kioskoan**

Trintxerpe musika banda: *Illumbe*.

**20:00 · Plaza Berrian**

Gero Axular dantza taldea.

**20:00**

**Tabakalerako patioan**

Hamabostaldia. Tabakalera dantzan. Myriam Perez Cazabon.

**20:00 · Kursaleko erabilera anitzeko aretoetan**

Hamabostaldia. Musika Garaikideko Zikloa. Spanish Brass.

**20:30-22:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Artie Escolar DJ-a.

**22:45 · Kontxako badian**

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa. Pirotecnia Lopez (A Coruña).

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

**22:30-02:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

DJ gaua: Tintz DJ-a eta Aitana Grandes DJ-a.

**23:30 · Alfontso XIII plazan**

Magia En Zapatillasen *DesOrekatua*.

**23:30 · Easo plazan**

Azabache orkestra dantzaldia.

**12:00 · Aquariumean**

Itsas Film festibala:

*En solitario.***12:30 · Easo plazan**

Bertsolariak: Maider Arregi, Miren Artetxe, Nerea Elustondo eta Izarne Zelaia. Gai jartzailea: Olatz Zuazubiskar.

**13:00-14:30****Kursaaleko Erizainen plazan**

Ando DJ-a.

**15:30-20:30 · Katalunia plazan**

Puzgarriak.

**16:00-19:00 · Katalunia plazan**

Mahai joko handiak.

**16:00-19:00****Kursaaleko Zurriola terrazan**

Ur parke puzgarria.

**16:30-18:30**

Zaratarik gabeko barrakak.

**18:00 · Elkano kalean**

Etxekoekin Sukaldean III. Gastronomía Lehiaketa.

**18:00 · Abuztuaren 31 kaletik**

Erraldoiak eta buruhandiak.

**18:30 · Erdialdean**

Antigua Band txaranga.

**19:00 · Tabakalerako patioan**

Hamabostaldia. Tabakalera dantzan. Hotel Col.Lectiu Escenic.

**19:30 · Katalunia plazan**Zirika Zirkus taldearen *Marietak*.**23:30 · Bulebarreko kioskoan**

Aimar, pop rock musika.

**23:45 · Saguesen**

Nil Molinerren kontzertua.

**ASTEAZKENA 14****Egun osoan zehar**

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

**09:30-14:00 · Loiola kalean**

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI. Azoka Berezia.

**11:00-14:00 / 17:00-21:30****Bulebarrean**

Eskulangintza azoka.

**11:00 · Katalunia plazatik**

Nordik walking zeharkaldia.

**11:00 · Trinitate plazan**

Barrene pilota jokoa.

**11:00 · Urumea ibaian**

Bisita gidatuak kanoetan.

**11:00-14:00 · Nautikoko terrazan**

Itsas hondoa garbitzea eta urpekaritza bataioak.

**12:00-14:30 / 17:00-19:30****Bulebarrean**

Larruzko tailerra, Luma tailerraren eskutik.

**12:00-22:30****Miramar jauregian**

III. Dantz Point Aste Nagusia.

**OLIYOS**  
TABERNA · JATETXEA

**Ondo pasa jaiak!**

Jose txo  
Irurtia Balerdi

Erregezaintza 4,  
DONOSTIA  
Tel.: 943-21 49 89

**PAPELERÍA DELTA**  
PAPERERÍA

Eskolara itzulerara %15eko deskontua  
Irailaren 1etik - 15era  
(Motxila, agenda, diseinua eta informatikan izan ezik)

Ordutegi berria: 09:00etatik 19:30etara.  
Andrestegi, 2 behea - ANTIGUA - Donostia  
943-22 38 98 - 663875255  
deltapapeleriass@gmail.com

deltapapeleriass



**19:30 · Bulebarreko kioskoan**

Sos del Rey Catolicoren udal musika banda (Zaragoza).

**19:30**

**Koruko Andra Mariaren Basilikan**

Salbe nagusia, Donostiako Orfeoiarekin.

**20:00 · Plaza Berrian**

Alurr dantza taldea.

**20:30-22:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Artie Escolar DJ-a.

**22:45 · Kontxako badian**

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa. Luigi Di Matteo Fireworks (Italia).

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

**23:30 · Parte Zaharretik**

Pasai txaranga

**22:30-02:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Kulto Kultibo, rap-reggae musika.

**23:30 · Easo plazan**

Agirren orkestra dantzaldia.

**23:30**

**Bulebarreko kioskoan**

Mexico en el Corazon mariatxia eta Mexico de Lupita folklore balleta.

**23:45 · Saguesen**

Totally Tina!, Tina Turnerren tributuaren kontzertua.

**23:45 · Aitzol parkean**

Festara!, Goratzar abesbatza.

**23:45 · Alfontso XIII plazan**

Festara!, Luberri abesbatza.

**23:45**

**Koruko Ama Birjinaren plazan**

Festara!, Gaztelubideko abesbatza.

**OSTEGUNA 15**

**Egun osoan zehar**

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

**09:30-14:00 · Loiola kalean**

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI. Azoka Berezia.

**10:30-20:00 · Bulebarrean**

Arte azoka.

**11:00-14:00 · Gaskonia plazan**

Puzgarriak.

**11:00**

Pasealeku Berriko LIV. Igerialdia.

**11:00 · Matia kalean**

Aste Nagusiko VII. Legatza Saltsa Berdean Lehiaketa.

**11:00 · Katalunia plazan**

Bizikleta eta patinetan jai giro martxa.

**11:30-14:30 / 15:30-20:30**

**Katalunia plazan**

Puzgarriak.

**11:30 · Urumea ibaian**

Bisita gidatuak kanoetan.

**12:00 · Kaitik**

Arkaitz Añorgako dantzariak.

**12:00 · Antiguan**

Tximeletak txaranga.

**12:00-14:00 / 16:00-20:00**

**Kursaaleko Zurriola terrazan**

Ur parke puzgarria eta uretako txirrista erraldoia.

**12:00 · Aquiriumean**

Itsas Film festibala: *Piraten benetako istorioa*.



**13:00-14:30****Kursaaleko Erizainen plazan**

Ando DJ-a.

**16:00-19:00 · Katalunia plazan**

Egurrezko joko erraldoiak.

**17:15 · Donostiako hipodromoan**Zaldi lasterketak,  
Urrezko Kopa.**18:00 · Alfontso XIII plazatik**

Erraldoiak eta buruhandiak.

**18:30****Erdialdean eta Parte Zaharrean**

Gauerdi txaranga.

**19:30 · Aitzol parkean**Hodei Magoak *Tutti-magia*.**19:30 · Katalunia plazan**Rojo Telonen *Transir* pop zirkuko kontzertu bisuala.**19:30 · Trinitate plazan**

Aizkolariak, Urrezko Kopa.

**19:30 · Bulebarreko kioskoan**

Zangozako udal musika banda (Nafarroa).

**20:00 · Plaza Berrian**

Voces del Ebro, jotak.

**20:30-22:00****Kursaaleko Erizainen plazan**

Artie Escolar DJ-a.

**22:45 · Kontxako badian**Su Artifizialen Nazioarteko 59.  
Lehiaketa.  
Pirotecnia Valenciana (Valentzia).**23:30**Zezensuzkoen entzierroa.  
Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani  
eta Bulebar.**22:30-02:00****Kursaaleko Erizainen plazan**Reggae gaua: Sista Kata eta Muxker &  
Dantzall Sound.**23:30 · Aitzol parkean**

Lipe Court, pop musika.

**23:30 · Alfontso XIII plazan**Trouble Woman, pop-rock  
musika.**23:30 · Easo plazan**

Ibai Berriak orkestra dantzaldia.

**23:30 · Bulebarreko kioskoan**

Bide Batez erromeria.

**23:45 · Saguesen**

Nogenen kontzertua.

**OSTIRALA 16****Egun osoan zehar**

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

**09:30-14:00 · Loiola kalean**Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI.  
Azoka Berezia.**10:00-13:00 · Urumea ibaian**Aste Nagusiko XXVIII. Arrantza  
Lehiaketa, Miguel Angel Fernandez  
oroimenez.**11:00-14:00 / 17:00-21:30****Bulebarrean**

Eskulangintza azoka.

**12:30-14:30 / 17:00-19:30****Bulebarrean**Itsulapikoak sortzen, Hazi eta Heziren  
eskutik.**12:00 · Aquareiumean**Itsas Film festibala: *Trouble. Lisa Andersen surferaren istorioa*.**12:30 · Easo plazan**Bertsolariak: Asier Azpiroz *Azpi*, Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Manex Mujika. Gai jartzailea: Iker Iriarte.



**13:00-14:30**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Ando DJ-a.

**15:30-20:30**

**Katalunia plazan**

Puzgarriak.

**16:00-20:00**

**Kursaaleko Zurriola terrazatik**

Uretako txirrista erraldoia.

**16:00 · Trinitate plazan**

Aste Nagusiko XXIX. Esku Pilota Txapelketaren finalak.

**16:30-18:30**

Zaratarik gabeko barrakak.

**17:00-20:00 · Katalunia plazan**

Haurrentzako eskrima.

**17:00-20:00 · Aitzol parkean**

Aste Nagusiko I. Begihandi Bere Tintan Lehiaketa.

**18:00 · Egiako kiroldegan**

XXIX. Egiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa.

**18:00 · Abuztuaren 31 kaletik**

Erraldoiak eta buruhandiak.

**18:30 · Amaran**

Tximeletak txaranga.

**19:00 · Tabakalerako plazan**

Hamabostaldia. Tabakalera dantzan: Javier Arozena.

**19:30 · Tabakalerako prisman**

Musika hamabostaldia. Tabakalera dantzan: Cia. Mal Pelo.

**19:30 · Katalunia plazan**

Sergio Arrospideren *El síndrome del aguacate* bakarriketa.

**19:30 · Bulebarreko kioskoan**

Gorgoseko Gatako musika batasuna (Alacant).

**20:00 · Egiako kiroldegan**

XXIX. Egiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa.

**20:00 · Plaza Berrian**

Eraintza dantza taldea.

**20:30-22:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Artie Escolar DJ-a.

**22:45 · Kontxako badian**

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa. Pirotecnia Vulcano (Madril).

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa.

Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

**23:30 · Parte Zaharrea**

Kitadelpare txaranga.

**22:30-02:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Pop-rock musika gaua: Super Cremalleras eta Artie DJ-a.

**23:30 · Aitzol parkean**

Bengoa DJ-a.

**23:30 · Alfontso XIII plazan**

*Kaiting in the night* bakarriketa.

**23:30 · Easo plazan**

Euroshow orkestra dantzaldia.

**23:30 · Bulebarreko kioskoan**

Eider, pop musika.

**23:45 · Saguesen**

Los Zigarrosen kontzertua.

## LARUNBATA 17

**Egun osoan zehar**

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

**09:30-14:00 · Loiola kalean**

Euskal Herriko Nekazal Produktuen XI. Azoka Berezia.

**11:00-14:00 / 17:00-21:30**

**Bulebarrean**

Eskulangintza azoka.

**10:30 · Nautikoko ontzirelekuan**

Piraguismoa.

**11:00 · Elkano kalean**

Aste Nagusiko XVII. Marmitako Lehiaketa.



**11:30-14:30 / 15:30-20:30**

**Katalunia plazan**

Puzgarriak.

**12:00-14:30 / 17:00-19:30**

**Bulebarrean**

Makrame tailerra, Sare Makramearen eskutik.

**12:00 · Aquariumean**

Itsas Film festibala: *Aquarium*.

**13:00-14:30**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Ando DJ-a.

**17:00-20:00 · Katalunia plazan**

Haurrentzako eskrima.

**17:00-19:00 · Katalunia plazan**

Txiki rally.

**17:30 · Egiako kiroldegian**

XXIX. Egiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa.

**17:30 · Abuztuaren 31 kaletik**

Erraldoiak eta buruhandiak.

**18:30 · Trinitate plazan**

Igeldoko eta Uliako Harria.

**18:30 · Erdialdean**

Los Bebes de la Bulla txaranga.

**19:30 · Egiako kiroldegian**

XXIX. Egiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa.

**19:30 · Katalunia plazan**

Tomaxen Abenturak *Azken festa* ikuskizuna.

**19:30 · Bulebarreko kioskoan**

Haize Berriak Sakanako musika banda (Nafarroa).

**20:00 · Zuloaga plazan**

Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra.

**20:00 · Kursaal auditorioan**

Musika hamabostaldia.  
Budapest Festival Orchestra & Patricia Kopatchinskaja.

**20:00-21:00 · Plaza Berrian**

Agur asteari, La Union Artesanaren laguntzarekin.

**20:30-22:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Artie Escolar DJ-a.

**22:45 · Kontxako badian**

Su Artifizialen Nazioarteko 59. Lehiaketa.  
Amaierako ikuskizun piromusikala.  
Oleirense Piroteknia (Portugal).

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa.  
Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

**23:30 · Parte Zaharrean**

Joselontxos txaranga.

**22:30-02:00**

**Kursaaleko Erizainen plazan**

Zatekeen dantzaldia.

**23:45 · Saguesen**

La La Love You kontzertua.

# Festetan ere aske! Indarkeria sexistarik ez!



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Berdintasuna  
Igualdad

[ezezetzda.eus](http://ezezetzda.eus)

#noesno  
#festetanereaske